

PRENTSA TXOSTENA



PLAINE D'ANSOT
10 JUIN - 28 AOÛT 2011

EXPO

François Riou

« Espèces en voie
d'apparition »



AURKIBIDEA

I. ERAKUSKETA _____ 3. Or.

II. ANSOTeko ORDOKIA _____ 5. Or.

III. NATUR HISTORIA MUSEOA _____ 6. Or.

IV. ARGIBIDE PRATIKOAK _____ 7. Or.

I. ERAKUSKETA

'Agertze-bidean diren espezieak'

"Espèces en voie
d'apparition"

François Riou-ren lanak

Elikakateak gainestalki puskatzaile, zakutxo urratzaile eta operkulu deserrotzaile jokaerak sortzen ditu gure egun guziko bizietan. Merkataritza-kontsumoko hondakinetatik sortuak, François Riou artistaren bioaniztasun koloretsua jalgitzen da gai organikoa birziklatzen duten euli edo koleoptero dekonposatzaileen gisan.

Artista

Boulle Eskolan grabatzaile formakuntza jarraikirik, arkitektura eta diseinuaren mundu aplikatuan lanean ari izana Parisen, François Riou azken zazpi urte horietan bere inbentario naturalista propioa sortzen ari da gure egun guziko hondakinekin. Bere lanaren aurkeztera jinen da Baionako Natur Historia Museora 2011ko ekainaren 10etik abuztuaren 28ra.

Urraspidea

François Riouk animale-sorta sortzen du egun guzietako objektuekin, kontsumo-gizartearen lehen lekukoak.

Ur gasdun botilia baten kapsula, gainestalki-kartoin bat edo kasko bat agertzeko den espezie berri baten abiapunduak dira. Gorputz kiribilkaturiko intsektuak, bare kurkuiluak, armadiloak, bere irudimendatik eta forma ainitzeko gaietarik sortzen dira hezurdurak. Bere bildumako «phonéoptères» izenekoak adibidez (teknologia handiko intsektuak preseski) telefonoetarik hartu zirkuitu inprimatu, teklatu, pantail, oskol edo teklez osatu alegiazko intsektuak baizik ez dira.

Artistarentzat, objektu itxuraldatu horiei eta gure kontsumo-gizartearen pizuari balioa ematea ez da arazoin bakarra. Bere motibapenetarik bat aurkikuntza-gela modernoak, are gehiago natur historia museoa, klase berriko bilduma horiekin osatzea da, erakusketak muntatu dituen leku ezberdinetan barreiatuak.

Beste gisa batez erranik, agertze-bidean diren espezie horiekin, François Riouk merkataritza banaketa-sare handiaren gaiekin irudiztatu nahi izan du bizidunen inbentarioa.

Baionako Natur Historia Museoa erakusketa

Hainbat museotan erakusketak antolatu eta, azkenak Rouen hirikoan eta Neuchâtelekoan (Suitza), François Riouk bere lanak aurkeztuko ditu Baionako Ansoteko ordokian kausitzen den Natur historia museoa, 2011ko ekainaren 10etik abuztuaren 28ra.

Bere xedea gure hiriarri eta Ipar Euskal Herriari egokitzuz, François Riouk kultur erreferentzi ainitz erabiliko ditu, gastronomia edo kirola bezalakoak alegia.

Erakusketa honekin lotu animazio zonbat aurkeztuko dituzte Ansoteko ordokiko animatzaileek eta beren partaideek.

Artistaren begiradaren bitartez, publikoa arazo horrekiko sentikortzea da helburua, beren azpiproduktuak diren hondakin horien erabiltzeari lotuz.

Produktu desbideratzea, gaien birziklatzea... hori dena aipagarria bezain sotila den estetizismo batekin: horra zertan ari den François Riou. Bisitaria galdezketatzen du inguratzen duena baita ere bere intimitatea hunkituz, norberak bere egun guziko biziko elementuak ikus litzakeelarik (sakelekoa, elikagaia, plastikozko basoa,...).

Bisitaria noraezean ibiliko da erakusketan barna miraila-galeria batean bezala: urrats bakoitzeko bere leinurua itzuliko dio.

François Riouren lanak hurbiletik ikustea ikuspuntu zabalagoa ukateko gisan: hauxe liteke erakusketa honen ikurburua.

François RIOU > artistaren ibilbidea

- 2010eko abuztua / 2011ko urtarrila : « Agertze-bidean diren espezieak » erakusketa Neuchâtel-eko (Suitzia) Natur Historia Museoan
- 2010eko Martxoa/uztaila: « Naturalisme de Grande Surface » erakusketa Rouen-ko (76) Natur Historia Museoan
- 2009ko Maiatza/ekaina : « Naturalisme de Grande Surface » erakusketa Barbizon-ko (77) VILLA Cyranon
- 2009ko apirila : egonaldia LA SOURCEn – (28)
- 2008ko iraila/urria:« Naturalisme de Grande Surface » erakusketa Montreuil-eko (93) APACC-n
- 2007ko urria: « OPERA bouffe» erakusketa, Montreuil-eko (93) APACC-n
- 2007 Martxoa/apirila: « Cœur » erakusketa, Montreuil-eko (93) APACC-n
- 2006ko azaroa: Lyon-en (69) erakusketa Ekologia eta Garapen jasangarria Ministeritzaren kondu.
- 2006ko urria : « Modernités Recyclées » erakusketa (la Maison Folie MOULINS – LILLE 3 000)
- 2006ko ekaina : DAPPER Museoa Parisen
- 2006ko martxoa/apirila: « Faits Divers » erakusketa, Montreuil-eko (93) APACC-n
- 2005ko azaroa: Kultur Zentro Montenegroarra Parisen
- 2003ko azaroa : Salon INTEROPen erakusketa Parisen
- 2001 – 2003 : Claude DORVAL Galeria – Parisen 11.

Animazioak

Tailerrak

Ekainaren 11a, larunbata / 15 :00-16 :30 / 8 urtetik goiti
« Création d’insectes » tailerra François Riou-rekin

Ekainaren 18a, larunbata eta abuztuaren 3a, asteazkena/ 14:00-17:00 / 6 urtetik goiti
« Du papier au papier » : paper birziklatua ekoizteko tailerra, Bil ta Garbi-ekin

Uztailaren 20a, asteazkena & abuztuaren 17a, asteazkena / 14 :00-17 :00 / 6 urtetik goiti
« POT 'Art »: iurt untziekin txintxuketa eta sorkuntza tailerra Bil ta Garbi-ekin

Uztailaren 23a, larunbata & abuztuaren 25a, osteguna / 14:00-17:00 / 6 urtetik goiti
« Création d’animaux improbables » : Familia tailerra, Hélène Fédida-ekin, artista plastikaria.
- Begia eta eskua. Deuse balio ez duen oro eraman, zerbait bilaka dadin.
Dohainikako tailerra. Izena eman 05 59 42 22 61ra deituz edo museum@bayonne.fr-ra idatziz.

Ipuinak

Uztailaren 16a, larunbata & abuztuaren 13a, larunbata / 15:00-16:30 / Denei irekia
Konda itzadazu alegiazko animaleak, De Bouche z'à oreilles elkartearekin.
Dohainik. Izena eman 05 59 42 22 61ra deituz edo museum@bayonne.fr ra idatziz.

www.ansot.bayonne.fr
(ou museum.bayonne.fr)

II. ANSOTEKO ORDOKIA

Natur gunea Baionako ateetan

Testuingurua

Ansoteko ordokiaren gunea Baionako ateetan dago Errobiko bartetako eremu heze zabalean. Itsasaldien pean dagoen partean kokatua da.

Saint Bernard hondar-pilan egin lubetarentzat, 1994an Baionako portuaren zabaltze lanetarako burutua, konpensazio gune bat bilatua zen. Ansoteko ordokiaren funtzio berria eta bere balioztapenaren iturburua bilaketa horretan dago.

Ansoteko ordokiaren 100 hektarek, ubide eta arroila sare batez trebeskaturik, kanaberadi pentze eta oihan hezeen presentziari lotu animale zoin lore aberastasuna eta indar azkarra dauzkate. Halere, 2000 urte hastapena arte, gunea laborantza aktibitateentzako erabilia bazen ere, ez da batere zaindua eta sare hidraulikoa ez da ongi ibiltzen.

Baionako Herriak eta Côte basque - Adour Hiri-elkargoak lurrak erosten hasiko dira orduan Pirinio-Atlantikoko Kontseilu Orokorraren laguntzarekin, Ansoteko ordokia « Natur eremu minberatsuetan » sailkatuz.

ZNIEFF eta Natura 2000 eremutzat hartua, gunea kudeaketa-plana baten pean dago, ondoko lan ardatz eta helburuen arabera: kudeaketa hidraulikoa, natur guneen kudeaketa, publikoari harrera, gunearen kudeaketa eta funtzionamendua.

Ordokiaren eginbideak

Ansoteko ordokiak eginbehar ainitz ditu beraz:

- Uholdeen zabaltzerako eta gune urbanizatuen babesarako eremua da ;
- Ingurumenarekiko sentikortze lanetarako eta naturaren zainketarako balio duen eremua da ;
- Kudeaketa ekologikoa eta bioaniztasunaren berrezarpena erabiliak dira bertan. Gunearen zainketa eta bere ezagutze hobea helburu duten ekintzak eramanak dira ;
- Azkenik, laborantza-iharduerak berriz abian jarriak dira kultura biologikoen sartzearekin.

Eta 2010eko ekainaz geroztik, Natur historia museoa dago. Guneke bizidunak eta erakusketa iraunkorretan aurkeztu espezie lastoztatuen arteko lokarria da. Ezagutzarako eta interpretaziorako eremu bakoitza bestearen zerbitzuko da.

Xorien behatokia jarria izan da ere bai. Denei irekia den eraikin horri esker, izan daitezten adituak edo jende arrunta, Errobiko bartetan diren xori espezie migratzaile edo sedentario ainitzen ezagutza eta behatzea egin daiteke.

Ansoteko ordokiaren gunea gaur egun egiazki erakargarria da osatzen duten habitat eta paisai aniztasunarengatik. Zentzu horretan, ingurumen-hezkuntza ekintzen eramateko parada badago, batez ere hurbileko hiritar eta ikasleengan.

Uholdeak direlarik arta bereziarekin kasu ematen zaio bere gune erregulatzailerako funtzioagatik, Errobi ibaiaren behealdean diren gune urbanizatuen babesa segurtatzen duelako.

III. NATUR HISTORIA MUSEOAK LEHEN URTEBETZEA OSPATZEN

154 urtez Baionako Natur Historia Museoak gorabeherak ezagutu ditu. 60 urtez zerraturik egon ondotik, azkenean 2010eko ekainan bere ateak berriz zabaltzen dizkio publikoari, bere bildumetako 20 000 piezen parte bat erakutsiz. Frantzian kasu bakarra, Ansoteko natur eremu zainduan kokatua da. Irekitze honekin batean Bartetako minean dagoen xorien behatokiarena gehitzekoa da.

Baionako museoetan zaharrena, Natur Historia Museoa 1856an sortu zuen Ulysse Darracq jaunak (1785-1872). Sant Ezpirituko botikari hura, naturalista eta bildumagilea, bere garaiko zientzilaria handienen berriemaile preziatua da. Lekualdaketa zonbat eta sute baten ondotik, 1949an hetsiko ditu bere ateak museoak.

Ansoten, lau eraikinez osatua da, horietarik Bartetako Etxea, 1 000 m²-ko hedadurarekin. Gune ezberdinetarik iraganez, bisitariak naturaren ikuspegi batez baliatuko da bere ainzatasunean eta bere osotasunean. Tokiko natur ondarearen ezagutza, bizigunea eta honen parte diren espezieen ulertzearen zerbitzuko dira bildumak hemen.

Hilabetean behin antolatzen dira astean zehar bisita lagunduak erreserba egin ondotik, asteazken eta larunbatetan ostegunak ikasleentzako atxikiak direlarik (egunak eta ordutegia web gunean edo telefonoz 05 59 42 22 61).

Ikerlariak eta ikasleek beren hausnarketarako elikagaia aurkituko dute, 10.000az gora erreferentziez osatu dokumentazio-zentroari esker. Azkenik, gaikako erakusketak ardura antolatuak dira Bartetako etxean.

Museoa zenbakitan:

4

2010eko ekainaz geroztik aurkeztuak izan diren erakusketa kopurua da: zuhaitza, Museoko belar-bildumak, animaleen migrazioak, Beste nonbaitik jin espezie horiek.

53

Azken 12 hilabeteetan antolatu animazio eta ikustaldi kopurua da.

1 100

Animazioetan parte hartu dutenen kopurua da.

11500

Museoko erakusketa iraunkorra ikusi dutenen kopurua da.

**www.museum.bayonne.fr
(edo www.ansot.bayonne.fr)**

IV. ARGIBIDE PRATIKOAK

« Agertze-bidean diren espezieak »

François Riou-ren lanak

2011ko ekainaren 10etik abuztuaren 28ra

Bartetako Etxea, Ansoteko ordokia- Baiona

Ordutegia (uda)

> Ansoteko ordokia: asteartetik igandera 9:30etatik 19 : 00etara.

> Bartetako Etxea eta Musoa: asteartetik igandera 10:30etatik 12:30etara eta 13:30etatik 18:00etara.

Tel : 05 59 42 22 61.

Jakiteko on

> Blanc zubitik iragan daiteke oinez edo pirripitarekin soilik

> Dohainikako parkalekua Floride kiroldegiaren aitzinean, Raoul Follereau etorbidean.

> STAB geldileku hurbilena Blanc zubitik 200 metrotan: Lauga.

> Dohainikako pirripiten hartzeko gune hurbilena : Mercure edo Tour-de-Sault.

> Ansoteko ordokirako eta Bartetako Etxerako dohainikako sartzea.

> Oinantzi eroak gomendatuak.

> Bide seinaleztatuetatik ez atera.

> Elektrikazko joan-etorlea dohainik asteazken eta larunbatetan 14:30etatik 17:30etara udan.

> Gune antolatuetan landa-bazkaria haizu.

**www.museum.bayonne.fr
(edo www.ansot.bayonne.fr)**